

BANDOA

(B6-2022)

SUHILTZAILE BOLUNTARIOETAN PARTE HARTZEKO DEIA

Berako suhiltzaile boluntarioak jende berriaren beharrean daude. Azken hilabeteetan hainbat boluntariok utzi egin dute taldea. Adinagatik batzuk, eta kontu pertsonalengatik bertze batzuk. Errelebo baten beharra ikusten da.

Gaur egun hamar boluntariok osatzen dute taldea, emakume zein gizonezkoak.

Ohar honekin Berako udaletik suhiltzaile boluntarioetan parte hartzeko deia egiten diogu Berako jardarteari.

Ekimen honek Nafar Gobernuaren eta Babes Zibilaren babesa du, eta Berako udalarena, nola ez. Ibilbide luzeko erakundea da, 1906an sortu baitzen.

Suhiltzaile izateko berariazko formakuntza saioak eskaintzen dira.

Herrian gertatutako hainbat larrialdietan beraiek dira tokira iristen lehenak, eta koordinazio lan garrantzitsua egiten dute larrialdi zerbitzuekin. Iazko sute handian, eta azken uholdeetan ezinbertzekoa izan da suhiltzaile boluntarioek egin duten lana.

Berako udalak biziki eskertzen du gure suhiltzaileen prestutasuna.

Beraz, norbaitek Berako suhiltzaile boluntarioen parte izan nahi badu, deitu dezala udalera, izena eman, eta behar duen informazio guztia jasoko du.

Berako udala: 948 630005 Edo helbide elektronikoa honetan ere eman ahal da izena:
berakosuhiltzaileak@gmail.com

BANDO

(B6-2022)

LLAMAMIENTO PARA PARTICIPAR EN LOS BOMBEROS VOLUNTARIOS

Los bomberos voluntarios de Bera están necesitados de gente nueva. En los últimos meses varios voluntarios han abandonado el grupo, unos por edad y otros por cuestiones personales. Se ve la necesidad de un relevo.

En la actualidad el grupo está formado por diez personas voluntarias, mujeres y hombres.

Desde el Ayuntamiento de Bera hacemos un llamamiento a la ciudadanía para que participe en los bomberos voluntarios.

Esta iniciativa cuenta con el apoyo del Gobierno de Navarra y Protección Civil, y como no podía ser de otra manera, del Ayuntamiento de Bera. Fue fundada en 1906.

Se ofrecen sesiones de formación específicas para bomberos.

En varias emergencias ocurridas en la localidad son ellos y ellas los primeros en llegar al lugar y realizan una importante labor de coordinación con los servicios de emergencia. En el gran incendio del año pasado, y en las últimas inundaciones, el trabajo de los bomberos voluntarios ha sido imprescindible.

El Ayuntamiento de Bera agradece sinceramente la disposición de nuestros bomberos y bomberas.

Así que si alguien quiere formar parte de los bomberos voluntarios de Bera, que llame al Ayuntamiento, se apunte, y recibirá toda la información que necesite.
Ayuntamiento de Bera: 948 630005
O también se puede inscribir en la siguiente dirección de correo electrónico:
berakosuhiltzaileak@gmail.com